

DURANGOKO HEZKUNTZA-ERRONKAK ELKARLANEAN GARATZEKO prozesua

UEK URTARRILEKO BATZARRA: akta

Eguna: 2024ko urtarrilak 15a

Ordua: 18:00-20:00

Lekua: Elkartegia

Bilera-modua: aurrez aurrekoa

DEITUTAKOAK	Etorritakoak	Etorri ez direnak
1. Asier Perugorria EAJ-PNV -hezkuntza zinegotzia	☒	☐
2. Nagore Lozano Zarandona (EH Bilduko zinegotzia)	☒	☐
3. Iker Txertudi (EAJ-PNVko zinegotzia)	☒	☐
4. Sheila Gozalez (PSE-EEko zinegotzia)	☒	☐
5. Daniel Irazola Atxa- Maristak-Zuzendaria	☒	☐
6. Moises Urien Arrizabalaga- Ikasketa Burua-Jesuitak	☒	☐
7. Arantza Arrizabalaga-Landako Eskola zuzendaria	☒	☐
8. Jon Gorriño Vicandi- Durango BHI zuzendaria	☒	☐
9. Oihane Garcia- Nevers ikastetxea	☒	☐
10. Iker Gomez de Segura Solis- Ibaizabal ikastola-Zuzendaria	☒	☐
11. Urko Rodriguez-Kurutziaga-zuzendaria	☐	☒
12. Oier Urigoitia-San Antonio ikastetxea zuzendaria	☒	☐
13. Maider Olabarria- IGE Zabalarra*	☒	☐
14. Maria Villa Amilibia- IGE Zabalarra	☒	☐
15. Idoia Aldekoa (Elhuyar)	☒	☐
16. Olaia Jimenez (HUHEZI-MU)	☒	☐
	14	1

1. Sarrera eta girotzea

Hezkuntza zinegotziak bertaratuei harrera egingo die ongi-etorria emanaz. Partaideak etorri ahala, prentsan agertu den komunikazioak duen argazkiari buruzko aipamenak azaldu direnez, komunikazioaren gaia tratatzea erabaki da saioari hasiera eman baino lehen.

Udaletik, zinegotziak hitza hartu du azaltzeko Udaleko komunikazio-taldean koordinazio hutsegite bat izan dela eta, horren ondorioz, publikatu dela albistea hezkuntza foroko argazkiarekin. Nahiz eta komunikazio enpresari ohartarazi, ez dute oharra kontuan hartu eta albistea kaleratu UEKean albisteari oniritzia eman baino lehen eta argazki okerrarekin.

UEKko partaideek zuzenketa egitea eskatu dute. Batetik, argazkia eta bestetik, lerroburua. Horretarako, UEKko partaideen argazkia unean bertan atera da eta hori bidaltzea adostu da. Aipatu da Kurutziaga ikastola falta dela eta komeni dela berau ohartaraztea gertatu denaz, argazkia zergatik egin den eta zertarako erabili den.

Bestalde, ikastetxe batzuek El Correotik deia jaso dute mugikorraren erabilera mugatzearen inguruko azalpena eskatuz. Gaia nola dagoen ikusita, esan da UEKeko komunikazioak egiteko irizpideak zehaztea ondo legokeela.

Jarraian, Udaleko komunikazio enpresak sortutako komunikazio-idatzia aurkeztu da. Bertan ageri dira ordezkari politikoek zein talde teknikoak egindako zuzenketak eta proposamenak.

UEKko partaideek honako hauek aipatu dituzte:

- Gazteleraz egotea ez da ikusten.
- Hezkuntza-diagnostikoa aipatzen da eta agian ondo legoke ondorioa nagusiak jasotzea.
- Azalekoa da komunikazioa. Adierazi beharko genuke gutxieneko oinarri komunak zertan adostu diren.

Talde teknikoak aipatu du, aurrera begira ere UEKko partaideen testigantzak jasotzen dituen bideo bat ere prestatzeko proposamena luzatu zitzaiola Udalari. Hartara, bideoan esperientzia eta bestelako gaiak ere sar daitezke, ekarpen horiek barne. Udaleko komunikazio-sailetik hurrengo UEKera irudiak hartzera etortzeko asmoa dute.

Jarraian, talde teknikoak gai-zerrenda eta helburuak aurkeztu ditu saioaren kokapena egiteko:

1. Saioaren kokapena eta girotzea.
2. Ekintza-planen garapena:
 - 2.1. Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako ikastetxeek modu bateratuan adostutako gutxienekoen lanketa
 - 2.2. Harrera-planen azterketa: ikastetxeek eta udalak egiten duten harrera-prozesua ezagutu eta partekatzea.
3. Komunikazio-plana.
4. Balorazioa eta itxiera.

Helburuak:

- Talde kohesioan sakontzea.
- Hezkuntza-erronkak modu bateratuan lantzea.
- Komunikazio-planean urratsak ematea.

2. Ekintza-planen garapena: ikastetxeak mugikorren erabilerarekin lotutako arautegia elkarrekin lantzea, modu bateratuan.

2.1. Mugikorren erabilera arduratsu eta jardunbide egokirako ikastetxeek modu bateratuan adostutako gutxienekoen lanketa

Ziberjazarpena

Ikastetxeak mugikorren erabilerarekin lotutako **arautegia** elkarrekin lantzea, modu bateratuan.



Azaroko saioan egindako lanketa gogoratu da lehenbizi. Araudiaren lanketan kontuan hartu beharreko abiapuntuko motibazio eta oinarriak kontuan hartu ziren. Honako hauek gogora ekarri dira:

ARAUDIAREN MOTIBAZIOAK/OINARRIAK

- Debekuan baino, **erabilera arduratsuan hezte**a, erabilera aukera egokiak proposatzea xede duena.
- Denean eta denentzat arau zurrin eta berdina baino, **ikastetxeko espazio, une eta adin desberdintasunak kontuan hartzea**, hala nola: etapa desberdinak, atsedeneak, patioa...
- Gaia sakonetik aztertzea eta **etengabeko sentsibilizazio**- eta kontzientziazio- lana egitea, mugikorren erabilera desegokiak sorrazten dituen arriskuen gainean.
- Erabilera arduratsua egiten ez denean, **neurri hezitzaileak (zuzentzaileak/erregulatzaileak) ezartzea** eta horretarako irakasleak ahaldundutzea eta duten rola argi izatea.
- **Hezkuntza-komunitate osoari** zuzendutakoa izatea, ikasleei ez ezik, irakasle, ikastetxeko langile, zein eskolaz kanpoko monitore eta hezitzaileei ere.
- Araudia definitzerakoan, **hezkuntza-komunitateko eragileak inplikatzeko** (ikasle, irakasle zein familiekin) eta denen arteko bateragarritasunak kontuan hartuta, kontsentsurako urratsak ematea.
- **Batera joatearen garrantzia** azpimarratzea (ikastetxeak modu bateratuan, etapak guztiak barne hartzea, LHn gaia lantzea gako izan daitekeelako geroko etapen portaeretan eragiteko...)
- **Arautegiari segimendua** egitea, mugikorraren erabilera arduratsurako ezarritako araudiak eragindako inpaktua ezagutu eta araudian beharrezko egokitzapenak egiteko.



Araudi hau Egilea: Egile ezezaguna. Lizenzia: CC-BY-SA-NC

Azaroko saioaren ondorioak honako hauek izan ziren:

- Ariketa egiterakoan ikastetxe bakoitzak berak zehaztuta edo erregulatuta duenetik aritu da, ez hainbeste jardunbide komun edo bateratu bat eraikitzen.
- Ikastetxe batzuetan araudiaren lanketa jada egin dago eta bidaltuta dago Jaurlaritzara; beste batzuetan, horretan ari dira eta abenduaren lehen asteetan bidaltzekoak dira. Ikastetxe bakoitza bere beharrei erantzuten ari da, eta ikastetxeak ez daude momentu berean.
- Araudiaren oinarrien aplikazioan badaude desberdintasunak:
 - o Batzuek familiekin aliantzak eginak, eta sentsibilizazioa landuta; beste batzuek ez hainbeste.
 - o Irakasleen eremua larregi landu gabe dago, oro har.
 - o "Debekua" edo "ezin da" formulazioa sakondu gabe, arautik jardunbide egokirako jauzian arreta jarri gabe.
- Positibotzat jo da partekatze lana egitea, desberdintasun batzuk dauden arren, arauari dagokionez antzera jokatzeko delako ondorioztatu da.
- Ez da bideragarri ikusi arautegi bakar eta komun bat eraikitzea, ikastetxeak gaiarekiko une desberdinetan daudelako eta legearen mugan, ikastetxe bakoitzari dagokiolako legearen aurretik edo atzetik joatea. Hala ere, **azpimarra jarri da, landutako oinarriak kontuan hartuta, herri mailan minimoak zein diren edo marra gorriak non dauden ezartzera iritsi beharko ginatekeela.**

Etapak bakoitzeko xehetasunek zera adierazten dute ikasle zein irakasleei begira:

LEHEN HEZKUNTZAN (IKASLEAK): - Arauari dagokionez, ikastetxeak bat datoz, berdin jokatzen dute. Eskolak ezin du arautu mugikorra eskolara ez ekartzea, baina bai eskolara ekartzen duenean honen erabilera. Hala ere, gomendioa bada ez ekartzea. - Ikastetxe batzuetan, gomendioa ematerakoan, familiak sentsibilizatzen dira mugikorra ez ekartzeko. - Gailuaren zaintzan eta arau-hausteari dagokionez ezberdintasunak daude: - Gailuaren zaintzan desberdintasunak daude ikastetxetik ikastetxera; batzuetan, ikaslearen ardura da gailuaren zaintza; beste batzuetan, zuzendaritzan entregatzen da eta eskola jarduna bukatutakoan itzultzen da. - Arau haustea errepikatzen denean, ikastetxe batzuk (denek ez) zehaztuta dute jardunbidea: lehen arau-haustean, itzuli; Bigarren arau haustean, hiru egunez gorde eskolan; hirugarrenean, bost egunez. Arau hausteen aurreko neurriak aplikatzeko, familien konplizitatea landu beharra dagoela azpimarratu da.
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN (IKASLEAK): - Mugikorra ezin da erabili, ondorioz, itzalita behar du egon eskola-orduetan. Erabili beharra suertatzen denean familiaren baimena egon behar da eta irakaslearen zaintzapean kudeatzen da. - Ikasleekin motibazioa lantzen da ikasturte hasieran, erabilera desegokiak bizikidetzarekin talka nola egiten duena lantzen da eta arriskuen berri ematen zaie.
BATXILERGOA (IKASLEAK): - Une guztietan mugikorraren erabilera mugatua da, ezin da erabili. Eskola jarduerarako behar denean, salbu. - Antzeko neurriak aplikatzen dira araua hausten denean lehen aldiz, eta baita arau-hausteak errepikatzen direnean. Zalantza ageri da ezarritako neurri horiek familiak ez balitu onartuko zer gertatuko litzatekeen, izan ere, lege ezin diogu mugikorra kendu. - Jangela ere erregulatutako espazioa da ikastetxe batzuetan, eta ezin da mugikorra erabili. - QR eta Kahoot aplikazioen dagokienez, gelan irakasleak baliabide gisa erabiltzen dituenean, onartuta dago, baina zer gertatzen da pasilloetan edo beste toki batean hori sustatzen badugu?
LEHEN HEZKUNTZAN (IRAKASLEAK): Irakasleei dagokionez, oro har, lanketa egiteke dagoela nabarmendu da. Ikastetxe batzuetan orain jarri dutela mahaigainean gaia eta irizpide edo gomendio batzuk landu nahi dituztela. Hala ere, erabilera arautzea zaila ikusten dela azpimarratu da, erabilera justifikatzeko hainbat izan daitezkeelako arrazoiak: laneko zerbait prestatzeko behar duela, elkarren artean komunikatzeko ere eroso da... Mezua da koherentziaz jardutea. Irizpideetako batzuk hauek dira: gordeta izatea, ez izatea ikasleen bistara ez bada beharrezkoa, eta eskura eta bistara izateko arrazoiren bat badago ikasleei horren barri ematea. Hasi barri dira gai honekin.
BATXILERGOA (IRAKASLEAK): Oro har, korapilo gisa agertu da irakasleriarekin gaia nola landu. Aipatu da zaila dela irakaslearen lana egitea mugikor pertsonalik gabe, beraz, ez erabiltzea eskatzerakoan kontraesanak sor daitezkeela, terreno labainkorra dela. Askotan eskatzen zaielako beraien telefono pertsonala eskolako beste kudeaketa edo komunikazioetarako erabiltzea, horregatik gero ez erabiltzea eskatzea zaila dela, ze honi heltzen diote: beharrezkoa dutela eskolako ohiko beste jardura batzuetarako.

Behin azaroko saioko errepasoa eginda, ikastetxe bakoitzak arautua duenetik, gutxienekoak taldean adosteko egin beharreko dinamika aurkeztu da.

- Paper handi batean gutxienekoak adosteko landu ditugun itemak ditugu. Horiek aurkeztu egingo dira.
- Item bakoitzarekiko adostasunak landuko ditugu guztion artean, zeri egin behar diogun check eta zer ez dugun landuko. Denok bete beharreko gutxienekoak zein diren landuko dugu.
- Horretarako, zirkulu berde bat irudikatuko dugu erdian eta beste zirkulu gorri bat ondoan. Eta zirkulu bien artean beste espazio bat sortuko da. Zirkuluen esanahia hau da:



- Zirkulu berdea:** item hori bere ikastetxean betetzeko prest
- Zirkulu gorria:** item hori bere ikastetxean betetzeko baldintzarik ez dago
- Erdiko espazioa:** item hori bere horretan ikastetxean betetzeko ez dago baldintzarik baina zerbait egokitu edo moldatuta, posible da.



Dinamikaren emaitza honako hau izan da:

IKASLEAK	
1 itema: Ikastetxeak mugikorrik gabeko guneak izango dira (oro har, jangelan, pasilloan, atsedenaaldian eta patioan barne) eta eskola-eremuan eta -ordutegian mugikorrak itzali eta gorde egingo dira	
-	Denak ados agertu dira, baina formulazioan badira kontuan hartzekoak: - o Item hori dagoen moduan 6-16 urte bitartera aplikatzen da, derrigorrezko eskolaldira, LH eta DBH. - o Salbuespena: arrazoi pertsonalengatik ez bada, dei bat jaso zain dagoelako. Hala ere, hemen aipatu da beti dei dezaketela eskola bertara. - o Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ezin da aplikatu, horietan atsedenaaldian, patioako orduetan ikasleek erabiltzen dutelako; atsedenaaldian kanpora joaten dira asko eta erabiltzen dute (Durango BHIren kasuan, patioako orduan erabiltzen dute ikasleek. Orduan, dagoen bezala ez da betetzen. DBH eta Batxilergoan berdina gertatzen da Ibaizabalen) - o Ondorioztatu da, zenbait ikastetxeetan patioan, DBHtik aurrera erabili dezaketela. Beraz, itemari, DBHtik aurrerako salbuespena gehitu behar zaio. - o Ikastetxe guztientzako oinarri minimo eta komuna da, HEZKUNTZA JARDUERETARAKO ez dela erabiliko. 0-16 urte bitartean, mugikorra ez dela hezkuntza erabilerarako erdigunean izango.
2 itema: Gordetzeko ardura ikasleak izango dute edo ikastetxeek, kasuan kasu	
-	Ados agertu dira.
3 itema: Mugikorraren erabilera soilik mugatuko da eskola jarduerarako edo hezkuntza helburuak garatzeko egoeretara.	
Adostasuna agertu da. Hala ere, azpimarra jarri da kasu bakanetan erabiliko dela. Eskola jardunerako mugikorra ez da erdigunean izango.	
Ohartarazi da, San Antonio ikastetxeko ikasleak atzerrira doazenean, dauden familietan baimenduta dute mugikorraren erabilera komunikazio kanal gisa.	

4 itema: Erabilera eta mugikorrarekiko jardunbide desegokiak gertatzen direnean, egoera erregulatzeko neurriak ezarriko dira

Formulazioa ez dagoela ondo adierazi da, **etapen arabera salbuespena gehitzea proposatu da.**

5 itema: Ikasleak mugikorraren erabilera desegokiak eragin ditzakeen arriskuen eta bizikidetzaz-azoen inguruan sentsibilizatuko dira, ikasturte hasieran eta ikasturtean zehar lanketa bereziak eginez eta ezarritako jardunbideen kontzientzia eragiteko.

Ados agertu dira sentsibilizazioarekin.

IRAKASLEAK

1 itema: Ikastetxeak mugikorrak gabeko guneak izango dira (oro har, jangelan, pasilloan, atsedendian eta patioan barne) eta eskola-eremuan zein -ordutegian mugikorrak itzali eta gorde egingo dira.

- Adostasunik ez itemarekiko, gaiaren lanketa ez delako irakasleekin egin ikastetxeetan, oro har.
- Zabalarran, meloi hau ez dutela zabaldu esan da.
- San Antonion, heldu zaio gaiari. Lanketa egin da. Lan tresna bezala irakasleek erabil dezakete, baina modu pertsonalean soilik urgentzia kasuetan.
- Lanerako baliabidea da, lan tresnak diren heinean...eskola jarduna garatzeko erabiltzen dira. Era berean, onartzen da irakasleak eredu izan behar duela eta berak ere telefonoaren erabilera arduratsua egitea dagokiola.
- Mugikorraren erabilera pertsonalik ez du egingo, baimenduta ez dauden tokiak kenduta; badaude guneak erabilera pertsonalerako.
- Formulazioan gutxienez ezin du une honetan izan ikastetxeak mugikorrak gabeko gunea izango dela; jarri daiteke, ikasleekin partekatzen diren eremuetan erabilera saihestu behar dela.

2 itema: Mugikorraren erabilera soilik mugatuko da eskola jarduerarako edo hezkuntza helburuak garatzeko egoeretara, eskolako barne zein kanpo komunikazioa, osasun arazoak...

- modu pertsonalean soilik urgentzia kasuetan.

3 itema: Mugikorra erabili beharra badago, eta ikasleen aurrean egonez gero, irakasleak azaldu egingo du egoera

- Jesuitak: irakaslea eredu izan behar dela argi dute. Araua markatu behar da, erabilera arduratsua egin eta telefono mugikorra gabe ezin gairen egon konturatu.
- Durango BHI: eremuak aipatu dira eta eredu izatearekin bat egiten dute. Ez dira telefono gabeko uneak edo eremuak, irakasleak badituzte erabilera guneak institutuan. Kafea hartzeko lekua, adibidez.
- Landako: irakaslea ikasleekin arreta zuzenean dagoenean telefonoa gordeta izan behar du beti.
- Formulazio hau egokia ikusi da itemean jasotzeko: irakaslea ikasleekin elkarrekintza zuzenean eta zuzeneko arretan dagoenean bezalako formulazio erabiltzea. Beraz, itema moldatu behar dela ikusi da. Lehen itemean jasotzen denarekin elkar lotu.

4 itema: Gelan ordenagailua baldin badago, mugikorra erabili beharrean, ordenagailua erabiltzea lehenetsiko da.

- Ikastetxe batzuetan irakasleek gelan ordenagailuaren erabilera lehenetsi behar dute asistentziak edo hutsegiteak jasotzeko, ez mugikorra.
- Egingarria ikusi da beste ikastetxeetan

5 itema: Irakasleak gaian ahaldundu egingo ditugu, garrantzitsua delako irakasleek argi eta garbi jakinaraztea ikasleei eskola-eremuan eta -ordutegietan mugikorra arduraz erabiltzeko

- Ados agertu dira sentsibilizazioarekin.
- Irakasleak eredu izatearekin lotu

FAMILIAK

1 itema: Familiak gaian inplikatu ditugu eta sentsibilizazio-lana eginez, mugikorra eskolara ez ekartzeko gomendioa luzatuko diegu

- Ados agertu dira.
- Ez dira sentsibilizazio ariketak egiten. Jarduera honek ikastetxeak inplikatzen ditu.
- Familiak kasu batzuetan eskatzen dute.

2 itema: Familiak gaian inplikatu ditugu eta sentsibilizazio-lana eginez, beraien seme/alabak mugikorraren erabilera desagokia eginez gero hartuko diren neurriak aplikatzeko konplize egingo ditugu

- Neurriak aplikatzeko konplizidadea bilatzen dela, kasu batzuetan ez da argi ikusi.
- Beste batzuk ikusten dute ikastetxetik familiekin konplizidadea bilatzen dela kasu honetarako zein beste batzuetarako.

3 itema: Familiak mugikorraren erabilera desagokiak eragin ditzakeen arriskuen inguruan sentsibilizatu ditugu, denok batera, modu bateratu eta koherentean jarduteak duen garrantzia azpimarratuz

- Bigarren itemaren moduan formulatzea proposatzen da, edo biek bat egitea
- Lanbide Heziketan ere familiek laguntza eskatzen dute.
- Formulazioari dagokionez: adingabekoen familiei komunikatuko zaie, sentsibilizatu eta zein norabidetan doan eskola.

IKASTETXEKO LANGILEAK

1 itema: Ikastetxeak mugikorrak gabeko guneak izango dira (oro har, jangelan, pasilloan, atsedendian eta patioan barne) eta eskola-eremuan zein -ordutegian mugikorrak itzali eta gorde egingo dira.

- Ikasleen aurrean edo zuzeneko arretan dauden kasuan, irakasleen item berbera jarriko litzateke (ikasleekin elkarrekintza zuzenean eta zuzeneko arretan dagoenean erabilera saihestu egingo dela)

IKASTETXEA

1 itema: Mugikorraren erabilera arduratsurako ezarritako araudiari jarraipena egingo dio ikastetxeak, eragindako inpaktua ezagutzeko eta araudian beharrezko egokitzapenak egiteko.

- Oro har, hezkuntza-espazioak mugikorraren erabilera alde batera utzi eta bestelako elkarrekintzak sustatzeko espazioak sortuko ditu, elkarren artean harremanak izan eta eta zuzenean hitz egiteko espazioak
- Mugikorraren erabilera zaindua egitean azpimarra jarri da.
- Familiek ere eskolaren ildo jarraitu beharko lukete.
- Ados agertu dira araudiaren helburuaren betetze-maila edo inpaktua jasotzeko jarraipena egiteari.
- Nola egin jarraipena?
 - o Landako: ikasleak bat egiten dute. Familiek ere aztertu dute gaia.
- Bermatu beharko luke UEKak jarraipena izatea.
- Galdegai nagusia izan behar da ea balio izan duen arauak lortu nahi den oinarria lortzeko?

- Formularioak erabil daitezke eta horrekin baloratu izandako inpaktua lortu nahi diren helburuetan. Nork, noiz eta zer.
- Aldaketarik ekarri du? Adibidez, Irakasleak ahaldundu dira etaparen arabera. Hori bada errealitate bat.

2.2. Harrera-planen azterketa: ikastetxeek eta udalak egiten duten harrera-prozesua ezagutu eta partekatzea.

Harrera-planaren ekintzari heltzeko denborarik egon ez denez, otsaileko saiorako laga da. Ikastetxe batzuk, harrera-planaren galdetegian emandako erantzuna osatzeko nahia agertu dute. Talde teknikoak galdetegi laburrago bat bidaliko die.

3. Hurrengo saioetako datak.

Otsailak 19 eta martxoak 19, biak Elkartegian.

4. Balorazioa eta itxiera:


Saioa ixteko, lurreko zirkuluak aprobeztatuta, berdean indarguneak eta gorrian hobetzekoak azpimarratzea eskatu zaie.

INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
- Pozik, heldu gara. Lortu dugu gutxienekoen gainean hitz egitea. - Jarraitzea eta eztabaida interesgarria, abersgarria. - Ikastetxeak lerrotatuta gaude. - Espazioa, lan-espazioa eta konfiantza-espazioa. - Zailtasunak ditugu komunikazioan, horretaz ohartzea. - Korapilatsua izan da gaia ateratzea, etorkizuna ikusi diot, pozik. - Ados esandakoarekin. Lasaia, aldaketa hobera. Talde bateratua. - "El roce hace el cariño". - UEKean gaia landuta, ikastetxera eramaterakoan indarra hartzen du. Klaustroa eramango dut eta adierazi, ez dela bakarrik zuzendariena. - Komunikazioa, eta barkamena. - Eskertzen da egiten duzuen lana. - Amankomunean jartzea eta errealitatea hurbiltzea oso positiboa da. - Lerrotatuta egotea eskertzekoa da. - Eskertu bioi sortzen duzuen giroa. - Lan handia dago. - Foro berria da, gai honetan bat etorri gara. Oso lagungarria da. - Kapaz izatea mugimenduak egiteko eta bakoitza beretik ateratzeko.	- Komunikatiboan ez naiz konturatu. Egiturak bateratu behar direla uste dut. - Gai teknologikoa da 'la bomba', alde ilunak eta borrokatu beharrekoak daude. - Gaian berandu heldu bagara ere, batera egitea oso garrantzitsua da. - Dinamikak luze. - Bakoitza berean zentratzen gara, baina batera goaz. - Komunikazioa landu beharrekoa, ikastetxeko elkarriketan esan duguna ez dator bat gero kaleratu denarekin.
ERDIGUNEKO AIPAMENA:	
- Egiten dugula egiten dugula ere, herria hezurmamitzen dugu. Hau egiten dugu komunikazioan pentsatuta edo langai izango delako?	

Bestalde, hauek izan dira ebaluazio- galdetegian, saioaren antolaketari buruz jaso ditugun emaitzak. 13 partaidetik, 5ek erantzun dute.


1. Sexua

5 erantzun




2. Bileraren ordutegia eta iraupena egokiak izan dira

5 erantzun




3. Bilera lekua egokia izan da

5 erantzun




4. Lanerako giroa atsegina izan da

5 erantzun




5. Gaiak lantzeko modua gustatu zait

5 erantzun




6. Parte-hartzea zabala eta anitza izan da

5 erantzun




7. Bilera aurretik jasotako informazioa egokia izan da

5 erantzun




8. Ekarpin interesgarriak egin dira

5 erantzun



9. Bileran izandako parte-hartzeak asetu nau

5 erantzun



INDARGUNEAK	HOBETZEKOAK
- Giroa - Korapilatsua izan den gai batetik irten, argitu, eztabaidatu eta gai izan Gara lanean jarraitzeko. - Bilera gidatzen dutenen aurretiko lana eta saioa bera garatzeko duten gaitasuna. - Gure arteko konfiantza eta gertutasuna. Iritziak emateko somatzen dugun askatasuna eta hauekiko antzematen den errespetua. - Taldea, dinamizazioa, dinamizatzailerak. - Gero eta talde trinkoagoa gara.	- Bileren maiztasuna - Komunikatzeko protokoloa argitu eta zehaztu. - Aurreko bileran komentatu zen bezala, komunikaziorako estrategia bat edo prozedura bat izatea. Udal Eskola Kontseiluan egiten den lana balioan jartzea eta berau, Herriari era egokian helaraztea. - Aldi-aldian saiotara joatea. - Informazioen kudeaketa. Agian leku partekatu batean edo moodle bitartez edo... kudeatu beharko genuke. - Ni-tik atera eta Gu horretarako urratsa emateke dugu oraindik